

## **ALEGIAKO UDAL BATZARRAREN OSOKO BILKURA**

**2016-11-28**

2016ko azaroaren 28an egin zen Udal Batzarraren Osoko Bilkurak emandakoaren laburpena duzue jarraian. Bost erabaki eta bi mozio izan zituzten aztergai.

### **ERABAKIAK**

#### **1-2016-10-26ko Osoko Bilkurako aktak onartzea.**

Ontzat ematen dira.

#### **2-Tolosaldeko taxi jardunbide bereziko zonaldea. 2017 ekitaldiko tarifak.**

2017ari begira, 2016ko taxien tarifak mantentzea proposatzen da.

**Bozketa:** EH BILDUko zinegotzien aldeko botoekin onartzen da. EAJko zinegotziek ez dute bozketan parte hartzen (abstentzioa).

#### **3-Udal Planeamendu orokorreko ordeko arauen “I-12 Becker” eremuari buruzko aldaketa txikia. Testu Bateratua onartzea.**

Espedientearen izapidetzea egokitze jotzea eta Udal Planeamendu Orokorreko ordeko arauen “I-12 Becker” eremuari buruzko aldaketa txikia, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2016/04/12an onartutakoak eskatzen duena betetzeko osatua den testu bateratua Udalarri dagokionean onartu.

**Bozketa:** Aho batez onartzen da.

#### **4-Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren estatutuen aldaketa.**

Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren estatutuetako hirugarren artikulua idazkera aldaketa proposamena.

**Bozketa:** Aho batez onartzen da.

**5-2016 ekitaldiko diru-laguntzak banatzeko proposamena. A) Kultura. B) Euskal Herri mailako egitasmoak. C) Gizartea.**

2016ko diru laguntzak banatzeko batzorde ezberdinek egindako eskariak aztertu ostean, Kultura Sailera, Euskal Herri mailako egitasmoetara eta Gizartera bideraturiko laguntzen banaketaren proposamena egiten da.

**Bozketa:** EH BILDUko zinegotzien aldeko botoekin onartzen da. EAJko zinegotziek ez dute bozketan parte hartzen (abstentzioa).

**MOZIOAK**

**1-EH BILDU taldeak aurkeztutako mozioa. Azaroaren 25a. Emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna.**

Ondokoa proposatzen da:

- Alegiako Udalak 2017 aurrekontuetan berdintasun-partida handitzea.
- Alegiako Udalak, tokiko talde feminista eta emakumeekin elkarlanean, prebentzio plan integrala garatzea.
- Alegiako Udalak, tokiko talde feminista eta emakumeekin elkarlanean, eraso matxisten kontrako protokoloa indartzea.
- Alegiako Udalak Foru Aldundiari eta Emakunderi berdintasun partidak handitzeko eskatzen die.
- Alegiako Udalak borroka feministaren alde duen konpromisoa berresten du.
- Alegiako Udalak azaroaren 25erako antolaturiko mobilizazioekin bat egiten du.

**Bozketa:** Alkateak aurkeztutako mozioa EH BILDUko bost zinegotzien aldeko botoekin onartzen da. EAJko zinegotziek ez dute bozketan parte hartzen (abstentzioa). EAJko Kerman Orbegozo zinegotziak “terminologia gogorregia” dela argudiatzen du aldeko botoa ez emateko. Alkateak orduan, EUDELEk bidalitako testua onartzea proposatzen du. Aho batez onartzen da.

**Erabakiak:** Istanbulerako Hitzarmena ezartzen dela bermatzeko, Alegiako Udalak Hitzarmenean xedatutako neurrien kalitatezko estandarra eta betearazpen-maila egiaztatzeko konpromisoa hartzen du, baita gai horri loturiko nazioarteko, Estatuko eta Autonomia Erkidegoko beste arauetakoak ere. Hainbat neurri zehazten dira.

**2-EH BILDU taldeak aurkezten duen mozioa. Zer egin dezaket nik euskararen alde? Euskararen Nazioarteko Eguna 2016.**

Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, adierazpen instituzional bat irakurri eta bozketara eramaten da.

**Bozketa:** Aho batez onartzen da.